

GRAMO BAT

Nerea Loiola Pikaza

Maider Leturiaga Angoitia



erein



peru
abarka
album lehiaketa



Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldageta egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2026ko urrian

Azalaren eta liburuaren diseinua:
Maidar Leturiaga

Maketazioa:
Asier Beltza

Irudiak:
Maidar Leturiaga

© Nerea Loiola Pikaza

© EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-147-3

L. G.: D 798-2026

EREIN Argitaletxea
Tolosa Etorbidea 107 - 20018 Donostia
T 943 218 300
erein@erein.eus
www.erein.eus

Inprimatzailea: Gertu inprimategia
Zubillaga auzoa, 9 - 20560 Oñati
gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

GRAMO BAT

Nerea Loiola Pikaza

Maider Leturiaga Angoitia



XVIV. Peru Abarka Album lehiaketa, 2026

erein

U.-ri

Klip bat.

Bitxilorea.

Mahaspasa.

Boligrafoaren tapa.

Ileko goma.

Ebakortza.

Bi xentimoko txanpona.

Kilkerra.

Zu.





Zortzigarren astean enbrioak gramo bat inguru pisatzen du, eta 16 mm neurtzen. Burua handiegia da oraindik gorputzarekiko proportzioan. Bihotzak bizkor egiten du taupaka. Eskuetan eta oinetan, hatzak bereizten hasiak dira; aurpegiko ezaugarriak marrazten. Organo nagusiek garapen betean jarraitzen dute.

Lababoaren ertzean utzi nuen, piztutako pospolo baten eran. Bainugelak hezetasun eta itoaldi usaina zuen. Geldi egon nintzen, eskuak bustita, nora begiratu ez nekiela. Bigarren marratxoa lizunki mantso agertu zen: arrosa ahul bat lehenik, gero nabarmenagoa, zure izena esan gabe esatera ausartu nahi balu bezala. Zer sentitzen nuen ulertu aurretik, kalkuluak egiten hasi nintzen. Berrogei aste. Zure hiru nebetatik gazteenak urte eta erdi izan aurretik jaioko zinen.

Mihia hortzen kontra dudala idazten zaitut. Izen bat entseatzten dut zuretzat, gero beste bat. Eta dena ezabatzen dut. Klariona arbel gainean bezala agertzen eta desagertzen zara. Neure baitan esaten zaitudan bakoitzean, odolak baino gehiago lotzen nauzu.



